

1.- Zergatik mutilek eta neskek hain parte hartze ezberdinak eskola kirolean?

Neska eta mutilek era ezberdinean parte hartzen dute kirol jardueretan eta nire ustez, ezberdintasun hau bakoitzaren interesetan dago. Nahiz eta azken urteetan nesken parte hartzean igoera bat izan dugun, oraindik ere desoreka dagoela argi dago.

Urtero Lezo Herri Eskolako ikasleei eskolaz kanpo egiten dituzten ekintzen datu bilketa egiten dugu eta gai honen inguruko datu interesgarriak ikusi ditugu. Alde batetik, mutilek neskek baina jarduera fisiko gehiago egiten dutela; mutilen %91 eta nesken %58ak parte hartzen du eskola orduetatik kanpo. Bestetik, jarduera fisikoa egiteko aukeratzen dituzten ekintzak ezberdinak direla: egiten duten mutilen %81ak eta nesken %67ak parte hartzen du eskola kirolean. Neska askok dantza, aerobika eta igeriketa bezalako ekintzak aukeratzen dituzte. Eta azkenik, neskek mutilek baina gehiago parte hartzen dute jarduera fisikoarekin zerikusirik ez duten ekintzetan; nesken %30ak eta mutilen %7ak ingelesa ala musika bezalako jardueretan parte hartzen dute.

Datu hauek irakurtzen neska eta mutilen interesak ezberdinak direla esan genezake baina joera hauen muinean dagoen arrazoia bilatu beharko genuke.

2.- Zergatik nesken eta mutilen taldeak? eta talde mixtorik ez?

Gai horren inguruan nahiko eztabaida dago gure arloko foro ezberdinetan baita gure artean ere. Esperientzia ezberdinak ditugu eta emaitza eta ondorio anitzak. Balorazioak egiterakoan ezin ditugu egoera (interakzioak dauden edo ez...) eta praktika (lehiakorrak, kooperatiboak...) guztiak zaku berdinean sartu eta trataera berdina eman.

Lezon talde mistoak izan ditugu (parte hartzeko ibilbideko testuingurua; astean bi saio eta partidua) baina benjamin eta alebinen esperientzia txarra izan zen. Are gehiago, ikastetxetik proposatu zen sexu araberako taldeak osatzea eta lehen urteetan (gaur egun gainditua dugu hori) ere hezitzailea emakumezkoa izatea. Lehen urteetan talde mistoetan parte hartu zuten neskek jarduera utzi zuten hein handi batetan.

Badira ikastetxeak non esperientzia positiboa den eta aurrera jarraitzen duten talde mistoekin; aipatu behar lehen urteetan egiten ohi dela bakarrik (LH3-LH4). Adin biologikoak, garapen mailak, interes pertsonalak, jarduerak eta testuinguruak garrantzia dute erabaki horiek hartzeko garaian. Pertsonalki sentsibilizazio handia dut gaiarekin eta urtero eztabaidatzen dugun gaia da baina argi ikusten ez dugun bitartean ez dugu talde mistorik egiteko erabakirik hartuko.

Hala ere, neska eta mutilen jarduera gurutzatzea positiboa izango dela baloratzen dugun ekintzetan, jarduerak elkarrekin egiten dituzte; LH2ko hurrekin egiten den jarduera., igerilekuetan txokoka antolatzen diren saioak, herri kiroleko saio bereziak...

Gai honekin amaitzeko aipatu nahiko nuke, gure egiturako arduretatik kanpo gelditzen bada ere, igeriketa kanpaina eta UDA kanpaina, besteen artean, Eskola Kiroleko programako jarduerak direla eta praktika guzti hauek elkarrekin egiten dituztela neskek eta mutilek. Arazotxoak sortzen zaizkigu parte hartzeko lehiaketetako jarduerekin hasten garenean, hain zuzen guk jorratzen dugun esparrua.

3.- Zergatik larunbatean ez dago bere Kirol Hezitzailearekin?

Badakit astean zehar hezitzaile batekin aritzea eta larunbatetan beste batekin lan egitea arraroa izan daitekeela batzuentzat. Guretzat larunbatetako jardunaldiak astean zehar egiten dugun edozein saio bezain garrantzitsuak dira eta talde bakoitzarekin egin nahi dugun lana aurretik ezarria izaten dugu.

Alde batetik, antolakuntza aldetik ezinezkoa izaten da hezitzaile bakoitza bere bi taldeekin aritzea, askotan partidak aldi berean eta leku ezberdinetan izaten direlako: 9 hezitzaile, 16 talderentzat. Gure apustua ahalik eta kirol hezitzaile eta estruktura hobereana lortzearen aldekoa denez eta kontuan hartzen badugu talde bakoitzak suposatzen duen lan ordu kopurua, bere garaian erabaki zen hezitzaile bakoitzak talde bat baino gehiagorekin lan egitea. Alde batetik lan eskaintza interesgarriago izan zedin eta hezitzaileen egonkortasuna sustatu eta bestetik estrukturaliki lan talde murriztago baino egonkorragoa izatea askoz ere egokiago eta emankorragoa zelako proiektuaren ikuspuntutik.

Bestetik, garrantzitsua iruditzen zait konturatzea hezitzaile bakoitzaren eginbeharra ez dela bere bi taldeekin egiten duen lanera mugatzen. Hezitzaileen lana ez da inolaz ere indibiduala, guztion artean lan talde bat osatzen dugu. Astero egiten ditugun bileretan bakoitzak bere taldeen izaera, motibazio maila, gora beherak, arazoak, ohar bereziak, hobetu beharreko

aspektuak, zigorrak, landu beharreko trebetasunak aipatzen ditu eta denon artean hartu beharreko erabakiak hartzen ditugu (bilera hauetan aipatzen dira larunbateko jardunaldiaren gora beherak ere).

Beraz, hezitzaile bakoitzak badaki larunbatean aurrean izango duen taldearekin lan egiteko behar duen informazio osatu eta landua. Kirol hezitzaileen artean izaera ezberdineko pertsonak daudela argi dago, batzuk jarrera bat azaltzen dute eta beste batzuk erreakzio ezberdinak dituzte, baina azken finean denak gaude bide berean.

4.- Zergatik iruditzen zaigu partidetan gure haurrak 'galduak' daudela?

Bi mailatan erantzungo nizuke arlo honetan. Alde batetik, ikus dezakezunarekiko eta bestetik aipamen horiek egiten direnean dituzuen erreferentziarik, hau da zerekin konparatzen duzun.

Pistan ikusten duzuenari buruz, guk ez dugu horrela ikusten. Egoera ezberdina da urtez urte eta talde bakoitzaren arabera: badira lau urteetan ia areriorik gainditu ez dituzten taldeak (eta oso kokapen eta joko itxurosoa ematen zuten) eta alebiretan talde kiroletan murgiltzea asko kostatu zaien taldeak eta badira baita ere lau urteetan ia partidarik galdu ez dutenak. Gure abiapuntua hezitzailea da, eta haur bakoitzaren garapena errespetatuz, helburuak epe luzera finkatu ditugu. Horregatik, hasieran talde batzuk batez ere, ez dute bat egiten larunbatetako erritmoekin.

Hala ere, esan nahiko nuke haur guztiek jasotzen dituztela jorratzen dituzten kirol modalitateen inguruko ezagupen nahikoak prozesuaren amaierarako. Dena den haurren perfilak, gaitasunak eta interesak anitzak direnez, haur bakoitzak bere erritmoan ulertu eta barneratzen ditu eta hori nabaritzen da. Arauak ezagutu arazi zaizkie edozein joko arauak definitzen baititu baina gogoratu jolasten jakitea arau batzuk ezagutzea baina haratago doala. Errazena izango litzatekeen (baina ikaskuntzaren ikuspuntutik zentzugabea) keinu tekniko espezifiko eta zuzendutako kokapen finkoen automatizatze lanetan aritzea baina guk garapen erritmoak errespetatzearen aldekoak gara.

Erreferentziarekin ere kirol hastapenean arazo bat dugu. Larunbatean jolasten ikusten ditugun haur horiek gure kirol ezagupenarekin neurtzen ditugu eta gure ezagupen hau helduen kirol praktikan oinarritutako kirol ereduak dira. Ordena, kokapenak, mugimendu antolatu eta zentzudunak ulergarriak dira guretzako eta horren baitan ebaluatzen dugu. Ez dakigu ordea, talde bakoitza zein helburu lantzen ari den eta zein erritmo daraman eta agian 'formalki' hobe jokatzen duela ikusten dugun talde batek epe erdira askoz ere lan eskasagoa egiten ari izatea.

Zenbat gaztek jarraitzen duen kirola egiten nerabezaroan eta gaztaroan izan beharko luke garrantzitsua eta horretan ez gabiltza gaizki: gurekin hasten den gehiengo nagusiak jardueran jarraitzen du eta ondoren (institutuan) jarduera fisikoaren praktika mantentzen da.

5.- Aldagela egokiak ditugu?

Jardunaldi berezietan badute dutxateko lekurik?

Aldagelen inguruan bailaran oso azpiegitura egokiak ditugula pentsatzen dut, hori bai, lasai eta txukun etxean edo hotel batean. Asteazkenean dituzten saioetan Bekoerrotako kiroldegiko aldagelak erabiltzen dituzte eta asteburuetan partidak dituzten jardunaldietan edozein kiroldegian txukun dutxatzeko lekua dute. Batzuetan leku gutxi badago ere, errespetuz aurre egin daiteke egoerari. Aipatzen dituzun jardunaldi berezietan oso txanda kopurutsuak izaten dira (140 haur inguru) eta egia da denentzat dutxatzeko lekua eskasa izan daitekeela. Hala ere, urtean zehar maila bakoitzak gehienez horrelako 5 jardunaldietan parte hartzen du. Hau da, ikasturte osoak dituen saio kopurua bere osotasunean hartuta, aldagelei dagokionez zailak diren bost egun izaten ditugu bakarrik. Larunbatero hainbeste haur mugitzen dituela (bailarako haurren %51ak parte hartzen du) kontutan hartzen badugu, aldageletako egoera arraskatsua da niretzat.

Aipatu dituzun jardunaldi berezi hauek, Euskal Pilota, Igeriketa, Herri Kirolak, Atletismoa eta Natur Jarduerak dira. Saio hauek urriak izanagatik garrantzitsuak eta ezinbestekoak dira; gure saioetan egoera anitzak proposatzen ditugun arren, horrelako saioetan gure haur eta gazteak jarduera ezberdinei egiten diete aurre, kirol ezberdinetan aritzen dira beste ikastetxeetako haurrekin. Egoera horietan talde kirol jakin batzuetan hain eroso sentitzen ez direnak aurki dezakete gustuko jarduera eta erabiltzen ditugun hiru kirol jarduera horietan iaioak diren horientzat erronka izan daiteke. Ingurune eta izaera ezberdineko jarduerak ere harreman sareak aldatzen dituzte eta haurren artean dinamika ezberdinak sortu. Baina batez ere, eta hori da gure helburu nagusia, garapenerako tresnak (arlotu kognitibo motorrean eta harreman sozialetan) eta estimulu ezberdinen aurrean erantzun berriak sortzeko tresnak beraien esku

jartzea. Bizipen atseginak badira, jarduera fisikoa ohiko bizitzara gehitzen lagunduko die.

6.- Larunbatetako epaileen lana nola baloratzen duzue?

Larunbatetako jardunaldietan taldeen inguruan lan egiten duen edozein agente hartzen dugu kontutan, epaileak barne. Asteartero Oarsoaldeako Eskola Kiroleko mahaikideak asteburuko epaileen inguruko balorazioa egiten dugu. Batzuk oso epaile onak dira gure ustez, besteak aldiz gogo gutxirekin aritzen dira.

Hala ere, honen inguruan hausnarketa txiki bat egin nahiko nuke eta guretzat epaile on baten ezaugarriak zeintzuk diren izendatu; guretzat epaile on batek bi taldeen mailaren arabera epaituko du jokaldia, jokalariek ulertzen ez duten zerbait dagoenean azalpenak emateko geldituko da eta emaitzaren arabera gauza batzuk 'pitatu' eta beste batzuk 'ahaztu' egingo ditu. Beraz, jokoaren bidez hezi ere egiten dugula eta helburuak garaipena lortzearen gainetik daudela ahazten duten horiek, agian ez dituzte horrelako egoerak ulertuko.

Hala ere gaur egun tamalez, bailaran ditugun epaileen artean badira batzuk gogo gabe datozenak. Guk gure aldetik, egoera hau aldatzeko urtero pausuak ematen ditugu eta txikiak badira ere, urtero epaileen perfila pixkanaka aldatzen ari dela esan dezakegu.

7.- Eta gurasoak, eskola kiroleko ikusle bezala, giroa txartzen al dugu?

Gai honen inguruan asko entzun dugu baina kontutan hartu behar da herri bakoitzeko errealitatea ezberdina dela. Badira urte batzuk kiroldegi bakoitzean Eskola Kiroleko teknikari bat aritzen dela arduradun moduan eta bere lanen artean egoera desegokiak sor ditzaketen gurasoak detektatzea dago. Horrelako kasuetan Oarsoaldeako Eskola Kiroleko Mahaian guraso hauek zein eskolakoak diren aipatzen da eta koordinatzaile bakoitzak bere mekanismoak martxan jartzen ditu arazoa konpontzeko. Urtero izaten da kasuren bat baina orokorrean Oarsoaldeako gurasoen giroa lasaia dela esango nuke.

Nik ez dut inoiz Lezo Herri Eskolako gurasoekin horrelako arazorik izan, beraien jarrera ereduak dela iruditzen zait.

8.- Antolakuntzan laguntzen al dute gurasoek....?

Lehen Hezkuntzako hurrekin lan egiten denean, gurasoen laguntza dagoela ukazina da. Gurasoak dira astean zehar kiroldegira ekarri, jaso eta larunbatero beraien seme alabak partidua duten lekura eramaten dituztenak. Beraz, desplazamendu aldetik ezinbestekoak dira guretzat. Honetaz gain, gurasoekin elkarrekintza izaten dugun etengabeko egoerak sortzen dira; bere seme alabekin dituen arazoak, zigorrak, komentarioak, oharrak... (guretzat oso informazio baliagarria da). Eta laguntza eskatu dugunetan jaso dugun erantzuna positiboa izan da.

Bestalde, Eskola Kiroleko Batzordeetara Guraso Elkarteko kide bat etortzen da eta gure egiturako erabakietan parte hartze aktiboa du.

Agian, denak elkarrekin egiteko ekintza mota batzuk antolatzea ona izango litzateke gurasoen integrazioa osoa izateko: guraso eskola, irteerak, txapelketak...

9.- Haurtxoak handitzen direnean jarraitzen al dute kirol munduan?

Azken urteetan, Lezo Institutuko irakasleen laguntzarekin, gurekin eskola kiroleko taldeetan parte hartzen duten jokalarien jarraipena egiteko aukera izan dut. Jasotzen ditugun datuen arabera, ikasle bakoitzak bere kirol bidea hartzeko aukera du eta kirola egiten jarraitzeko joera argia ikusten da. 2010-2011 ikasturtean DBHko ikasleen %81ak, Jarduera Fisikoa egiten zuen eskola orduetatik kanpo. Oso datu positiboa da.

10.- Nola baloratzen duzue zelai edo aretoetan duten jarrera eta lana? eta aldageletakoa?

Lezo Herri Eskolako taldeen jarrera orokorrean ona da, zentzu honetan pozik gaude. Joko aretoetan normalean errespetuz jokatzeko dute epailearekin eta aurkariarekin. Batzuetan aurkako taldeko jokalariren batekin liskarren bat

izaten da baina ez da momentuko tentsiotik pasatzen. Kiroldagietan izaten duten jarrera ere egokia da, instalazioak ongi zaintzen dituzte eta ez dugu arazorik izatean.

Aldageletan izaten dugu puntu arriskutsua; kirol hezitzaileek uneoro kontrolatzen ez duten gunea da eta hor haurrek talde ezberdinekin topo egiten dute (asteburuetan kontrako taldearekin eta astean zehar Lezoko beste taldeekin). Hala ere, nahiko talde arduratsuak dira eta higiearen inguruko ohituretan ereduak direla esango nuke.

Nahiz eta batzuetan kanpotik horrela ez ikusi, larunbateko saioei (gehienetan partidak) garrantzi handia ematen diegu, asteko saiorik berezi eta intentsitate handienekoa baita haurrentzat; hau honela, indar handia jartzen dugu ondo joan daitezen eta gure helburuak lortu; gure helburuak egun horietan (partida irabaztetik urruti) ez datoz bat guraso batzuen helburuekin eta hor sortzen dira gaizki ulertuak. Argi utzi behar da saio horiek partidak direnean haurrek eta guk oso helburu ezberdinak ditugula, horregatik gara hezitzaile eta gurasoen ikuspegiak hurbilago egon beharko luke gureaz haurrenena